

# IKASLEEN TXOKOA - Hernani Institutua



## Angel Olaran hernaniarra projektu bat gauzatzen ari da Wukron / III



Eider Aldabe  
korrikalaria / II

Emakumeen kirola  
maldan gora!



LIBURU KRITIKA / IV

"Txakurrari gauean  
gertatutako istripu bitxia"

IV / IRITZI ARTIKULOA

Hernaniko  
jolas-igerilekuak



Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## HERNANI INSTITUTUA

### EIDER ALDABE

Korrikalaria:

# Emakumezkoen kirola maldan gora!

Azken urte hauetan ikusi ahal izan dugunez, emakumezkoen kirola haziz doa.

Emakumezkoen kirola gizonezkoenarekin parekatu al daiteke? Egia esan, gure gizartean gizonen kirolak garrantzia gehiago du. Hala eta guztiz ere, azken urteetan emakumeen kirola indartzen joan da gure herrian. Izan ere, hainbat emakume talde sortu dira kirol mota ezberdinetan. Adibide gisa, hor ditugu boleibol eta palako taldeak, futboleko bi taldeak... Gainera, badira talde mistoak ere. Herrian ezagunenak waterpolo eta atletismoko taldeak dira eta hauetan gizonezko ugari dauden arren, nabarmentzen diren emakumezkoak ere badira. Azken bolada honetan, atletismo taldean oso emaitza onak lortu dituen emakumezko korrikalaria Eider Aldabe dugu, nahiz eta orain Irungo taldean dagoen. Hernaniar gaztearekin hitz egin dugu gai honi buruz, bere iritzia eskatuz:

#### Noiz hasi zitzaizun kirol honekiko zaletasuna?

Amak behin karrera batera apuntatzeko esan zidan opariak ematen zituztelako eta ni denetara apuntatzen naizenez, ba apuntatu egin nintzen. Orduan, hurrengo urtean Hernaniko taldean izena eman nuen.

#### Aurretik beste kirolen batean jardun al zara?

Umetan eskola kirolean aritzen nintzen eta gero igeriketa taldean ibili nintzen, federatuta, atletismora sartu aurretik.

#### Zenbat lorpen izan dituzu eta zein izan da zure-

#### tzako garrantzitsuena?

Orokorrean krosetan kopak eta medailak irabazi ditut, baina garrantzitsuena Euskadiko txapelketako froga irabaztea izan da.

#### Zenbat denbora egon zara Hernaniko taldean?, zergatik aldatu zara Irunera?

Hamaika urterekin hasi nintzen Hernanin, lehenengo urte arte. Iaz pasa nintzen Bidasoa taldera eta orain han nabil. Hernanin nire adineko jendea ez dagoelako eta taldea osatzea zaila izaten delako aldatu nintzen. Asko gustatzen zait bertako giroa.

#### Lilatonen parte hartu duzu noizbait? Zergatik?

-Ez dut inoiz parte hartu, beste proba batzuekin koinziditzen duelako. Gainera adinarengatik iaz parte har nezakeen lehenengo aldiz. Egia esan, gogoia daukat, polita izan behar du.

#### Entrenamenduetan asko prestatzen al zara?


Ez dakit, tokatzen den entrenamenduaren arabera, baina orokorrean bai. Hala ere, ondo pasatzea da nerretzat helburua.

#### Astean zenbat entrenatzen duzu?

4 - 5 egun astean, astearen arabera

#### Dieta berezirik egiten al duzu?

Ez, ez dut dieta berezirik egiten. Gurasoek esaten didate txokolate gehiegi ez jateko, baina... betidanik jan dudana bezala jaten dut, normal.



Eider Aldabe

#### Nola ikusten duzu emakumezkoen kirola gaur egun?

Hazten ari da; lehen gutxi praktikatzen zen baina orain hazten ari da. Hala ere, karreretan diferentzia ikusten da: mutiletan 5 serie baldin badaude, neskak batekin konformatzen dira. Behobian adibidez, izugarriko gizonezko pila ateratzen

da eta emakume oso gutxi. Fama edo arrakastan ere nabaritzen da. Gizonezkoek arrakasta askoz handiagoa dute, adibidez errealeko jokalariek duten fama, nahiz eta baldarrak izan...


#### Nola ikusten dituzu Hernaniko emakumezkoen gainontzeko taldeak?

Ondo, kirola egitea ona dela uste dut eta zenbat eta talde gehiago egon, hobeto.

#### Etorkizunerako planik? Ahal dudana arte jarraitu, je, je.....

MAIALEN IZAGIRRE, EVA GONZALEZ ETA JANIRE GARIN  
Hernani Institutua

## JANGELA SOLIDARIOA



**ANGEL OLARAN:**

«Gupida polita izango  
litzateke bidegabekeria  
ebatzita egongo  
balitz»

Angel Olaran jangelara joaten diren umeekin.

## Angel Olaran hernaniarra proiektu bat gauzatzeko ari da Wukron

Wukro Afrikako ipar-ekialdean dago kokatua, Etiopian hain zuzen ere. Afrikako hamargarren herrialde handiena da. Wukrok 33.000 biztanle ditu eta horietatik, 1.500, umezurtzak dira, hauen %61 15 urtetik beherakoa da eta %10 eskolatu gabea. %80en etxeetan hileko errenta 30 birretara (3 €) ez da iristen. Uste da umeen % 90ak elikadura arazo larria duela. Egoera honek herrialdearen garapen sozio-ekonomikoa nabarmenki baldintzatzen du, izan ere, heriotz, gaixotasun eta garapen-mentalen atzerapenen indize oso altuak aurki daitezke.

Angel Olaran (Hernani, 1938/5/17) Aita Zuriaren misiolari bat da. Bere bizitzako 20 urte Tanzanian eman ondoren, Wukrora joan zen eta han dihardu lanean, bere proiektuarekin jarraituz. Wukron, Abba Melaku izenez da ezaguna (Zeruko aingerua).

Proiektu honetan murgiltzeko arrazoi nagusiak honako hauek dira:

Bizitzeko beharrezko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten herriekin dagoen ardura dela eta, arrazoi etiko eta moralengatik elkartasuna adierazi nahi izatea.

Angelek berak behin eta berriro eskatu izan du laguntza, misiopean dauden umezurtzen elikadura ziurtatzeko. GKE-ak gose kronikoa ekiditeko beharrezko fondoak lortzeko dituzten arazoak direla eta, garapen

jasangarriaren filosofiagatik, ia ezinezkoa egiten zaie eskaera hauei aurre egitea.

Wukroko egoera zail honen aurrean, Angel Olaran proiektu bat aurrera eramaten ari da. Honen helburua bost urtetan 500 umezurtzen elikadura gastuak bermatzeko diru laguntzak lortzea da. Kalkulatzen da euro erdi baino pixka bat gehiagorengatik, hau da, taberna batean kafe erdiak balio duenagatik, ume baten eguneko hiru otorduak ordaindu daitezkeela.

Bosgarren urtetik aurrera, eta beharren arabera, partikularren diru laguntzen bidez, proiektu hau iraunaraztea da helburua. Herri-tarren laguntza hau urte hauetan lorturiko sentsibilizazio prozesuaren emaitza izanik.

**OHARRA:** Norbaitek diru laguntzarik eman nahi izango balu ondorengo kontu korrente zenbakietara sar dezake:

**Euskadiko kutxa:**  
3035 0060 41 0600600006

**Kutxa:**  
2101 0001 19 0010969640



Wukroko ume baten begirada esanguratsua.

22

zenbakia

# ikasleen txokoa

IRITZI ARTIKULUA

## Hernaniko jolas igerilekuak

IDEIA bikaina izan da Hernanin Jolas igerilekuko instalazioak eraikitzea. Iraganean inbidia pittin batekin begiratzeko genien ondoko herri txikiagoek (Astigarraga, Urnieta) zituzten honen tankerako instalazioei. Hernaniko udala jolas igerilekua eraikitzean zuzen ibili da, besteak beste Andoain, Tolosa eta Donostiako jendea bertara etorriko delako eta ondorioz hau herriaren garapenerako lagungarria izan daitekeelako.

Hala eta guztiz ere, hasierako ideia ona bada ere, eraikinaren egitura kritikatu beharra dago. Obra-lanak bukatu gabe, presaka irekitzea erabaki zuten, eta hori izan daiteke kritikaren erroa: landatutako belarra oraindik ez da sendotu eta nahiko gogorra dago, piztina inguruko lurra irristakorregia da, istripu arriskua benetakoa da, ... Hauek hurrengo udarako hobetuko dituzte seguruenik, baina, hori ere ikusi egin behar.

Bestalde, benetan, nori zuzenduta dago ur parke hau? Nire ustez politegia egin nahi izan dute, umeentzat. Proiektuan zioten bezala "ur-parke" bat izateko 13 - 14 urtez gorako gazteen-tzat aspergarria baita.

Dagoena ez dago gaizki, aipaturiko ikutu horiek emanda noski, eta umeentzako bada ere, positiboa ikusten dut horrelako instalazioak eraikitzea.

ASIER EGAÑA  
Hernani Institutua



Hernaniko igerileku irekiak.

LIBURU KRITIKA



## "Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia"

IDAZLEA:

Mark Haddon

Hainbat arrazoi daude nobela honetaz hitz egiteko: arrazoi nagusia nobela dibertigarria dela eta une atsegin bat pasatzeko aukera ematen digula.

Liburu hau autismoa duen gazte baten ikerketaz ari da. Christopher, bere bizilagunaren txakurraren hilketatik hasten da bera erruduntzat jotzen dutenean. Aldi berean, bere familiaren sekretu eta gezurak agertzen dira.

Christopherrek gaitasun bereziak ditu, besteak beste: zenbakiak eragiketarako egiteko, behatzeko, herrialde guztien izenak oso ondo dakizki, baina aldi berean zailtasun asko du besteekiko harremanetan; baita emozioak kontrolatzen ere.

Hauek autisten ezaugarrietako batzuk dira.

Christopherren hitzetan: "Dena txukun eta ordenatuta ikusteak arriskutik kanpo sentiarazten nau".

ASIER EGAÑA  
Hernani Institutua

## GIZARTE eta KULTUR ANIMAZIOA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



- Goian bego -  
(1999 - 2007)

Hernanin hil zen administrazioak hartutako erabaki baten ondorioz.

Urak dakarrena  
urak daroa,  
zuk emandakoa  
gurekin geratzen da.

Zure azkeneko ikasleak gogoan zaitugu.

MAIALEN AGIRREZABALA, OIHANA AIZPURUA, NAIARA ANZIZAR, OIHANE SANZ, OLATZ URANGA, NAGORE ZUBITUR.